



1. ALDIKO PROBLEMAK

1.- KORRIDOREA

Korridore batean baldosa-ilara bat ikusi dugu. Baldosa bakoitzak ondorengo ereduari jarraitzen dion kolorezko zati bat dauka



Baldosa bakoitzaren aldea 10 cmkoa baldin bada eta guztira 237 baldosa baldin badaude:

- Nolakoa izango da azken baldosa?
- Zenbat neurtuko du guztira azal koloredunak?
- Gehien jota, zenbat baldosa margo genitzake 1 m^2 margotu ahal izateko baino ez bagenu pinturarik ?

SOLUZIOA:

- a) $237 = 4 \times 59 + 1$. Azken baldosa izango da





- b) 4 baldosako multzo bakoitza: $100 \times 3/4 = 75 \text{ cm}^2$
 $75 \times 59 + 25 = 4450 \text{ cm}^2$
- c) $10000 = 133 \times 75 + 25$
 Baldosa kopuru osoa: $133 \times 4 + 1 = 533$ baldosa.

2.- TRIANGELUA ZATITZEN

ABC triangeluaren BC aldea 20 cmkoa da. Triangelu honetan, ondoko irudietan ikus daitezenez:

- a) AB aldea 3 zati berdinetan zatitzen duten BC aldearekiko bi segmentu paralelo marraztu ditugu. Zein da bi segmentu horien luzeren batura?




- b) AB aldea 8 zati berdinetan zatitzen duten BC aldearekiko 7 segmentu paralelo marraztu ditugu. Zein da 7 segmentu horien luzeren batura?

SOLUZIOA:

- a) 20 cm.
- b) 70 cm.

Badaude era ezberdin batzuk ebatzeko. Politenetako bat ondorengoa da: Irudian ikus daitekenez, beste triangelu berdin bat, buelta emanda, marraztu dugu originalaren ondoan:




Osatutako paralelogramoan segmentu guztiak luzera berekoak dira (20 cmkoak hain zuzen), beraz zazpi segmentuen batura: $(7 \times 20) / 2 = 70$ cm.


3.- TAULA MOZTEN

7x7 laukitxoko taula karratu bat dugu. Zati ezazu 6 zatitan ondoko bi baldintza hauek betetzen direlarik:

- i) 5 ebaki zuzen, koadrikularen lerroei jarraituz egin behar dituzu.
- ii) Sei zatien bidez (denak erabiliz, bata bestearen gaintik gainezarri barik ez eta hutsuneak sortu barik) beste hiru karratu egin daitezke.



SOLUZIOA:



49ren deskonposaketa bakarra hiru karratu perfektutan da $49 = 36 + 9 + 4$
Hemen duzu ahalko soluzio bat.

4.- ZINEMAN

Ana, Beatriz, Carmen eta Diana zinemara joan dira eta lau ondoz ondoko aulkitan eseri dira. Anak Beatrizen ondoan eseri nahi du eta Carmenek ez du Dianaren ondoan eseri nahi.



- a) Zenbat era ezberdinetan eseri daitezke?
- b) Bosgarren lagun bat, Elena, baletor, eta honek Dianaren ondoan eseri nahi izango balu, zenbat era ezberdinetan eser litezke bost lagunak?

SOLUZIOA:

- a) 4 era: A eta B erdiko aulkietan eseri beharko dira:
DABC ,, DBAC ,, CABD ,, CBAD
- b) 16 era:
A eta B lehenengo 2etan: ABDEC ,, ABCED ,, BADEC ,, BACED ,,
A eta B 2.ean eta 3.ean: CABDE ,, CABED ,, CBADE ,, CBAED
A eta B 3.ean eta 4.ean: Beste 4 kasu aurreko atal moduan
A eta B 4.ean eta 5.ean: Beste 4 kasu aurreko atal moduan